**BANCO BILBAO VIZCAYA,**
**REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/**
**EUSKALTZAINDIA:** ***Hitzarmena***

*Bilbo, 1997-IX-17*

# ELKAR LANERAKO HITZARMENA

*Bilbon, 1997ko irailaren 17an*

## BILDURIK

Alde batetik, **José Angel Sánchez Asiain** jauna, adinez nagusia eta lanbide-helbidea Bilbon, Gran Vía 12, 2. solairuan duena eta 14.349.698 NAN zenbakia duena.

Bestetik, **Jean Haritschelhar Duhalde** jauna, adinez nagusia, 13348 / 89 NAN zenbakiduna, eta lanbide-helbidea Bilbon, Plaza Barria 15ean duena.

## PARTE HARTZEN DUTE

Lehenak, helbidea Bilboko S. Nicolas Plaza, 4an duen Banco Bilbao Vizcaya Fundazioko buru denez eta haren izenean eta ordezko bezala. 1988. urteko urriaren 19an egindako eskrituraren baimenarekin sortua Madrileko Carlos Huidobro Gascon Notario jaunaren aurrean, alegia, 2.948 zenbakidun protokoloaren arabera, eta Erakunde Kultural Pribatuetako Erregistroan 228 zenbakia duena, eta IFZa G-78.668.555 (aurrerantzean FUNDAZIOA).

Bigarrenak, hots, Jean Haritschelhar jaunak Euskaltzaindiaren izenean eta hura ordezkaturik, euskaltzainburua baita, helbidea Bilbon, Plaza Barria, 15 eta IFZa G-48091961 izanik (aurrerantzean EUSKALTZAINDIA).

## HAU AZALTZEN DUTE

1. FUNDAZIOAK helburu behinena, kultura ekintzak bultzatzea, programatzea, garatzea eta burutzea duela.

2. FUNDAZIOAk, euskara batuaren oinarrietariko bat den "HIZTEGI BATUA" deritzan egitasmoan partaide izateko asmoa adierazi diola EUSKALTZAINDIAri.

3. Euskaltzaindiak, bere aldetik, FUNDAZIOAk eskainitako partaidetza onartzen eta eskertzen du. Jokabide hau eredugarritzat jotzen du Euskaltzaindiak, erret akademiei bultzatzea dagokien lan zientifiko, intelektual eta ikertzaileari gizarte erakundeek babesa eta laguntza emateko orduan.

Honen guztiarengatik, hitzartzen duten alde biok, elkarri beharrezkoa den gaitasun legala onartuz, jarraiko agiria moldatzean

BAT DATOZ

eta elkarlanerako *hitzarmena* egiten dute

BALDINTZA

hauen arabera:

**Lehena (Helburua)**

Aipatu lankidetza HIZTEGI BATUA burutzeko laguntza ematea da. Hiztegi horren edukia, honi eranskin moduan atxikitako idazkian aurkezten da, alde biek sinatua eta, ondorio guztietarako, hitzarmen honen partetzat hartzen da.

**Bigarrena (Iraupena)**

Lankidetza hitzarmen honek HIRU URTEKO iraupena izanen du, 1999ko abenduaren 31n amaituz.

**Hirugarrena (Lankidetzaren zenbatekoa)**

FUNDAZIOAk EUSKALTZAINDIAri, elkarlanerako laguntza moduan 8.500.000 (ZORTZI MILIOI ETA BOSTEHUN MILA PEZETA) emango dio urtero. Aipatu diru-kopuruan sartuak daude hitzarmen honetatik erator daitezkeen zerga eta kenketa guztiak, baita Balio Erantsiaren Zerga (B.E.Z) barne.

**Laugarrena (Ordainketa era)**

Ordainketa nola eta urtean zehar zenbat zatitan egingo den, hitzarmen honetako bosgarren klausulan aipatzen den Jarraipen batzordeak erabakiko du, beti ere egitasmoaren diru-beharrizanen arabera.

Ordainketak, Euskaltzaindiak adierazitako banku-kontuan transferentzia eginez burutuko dira, dagokion faktura aurkeztu eta gero.

**Bosgarrena (Jarraipen batzordea)**

FUNDAZIOAren eta EUSKALTZAINDIAren arteko lankidetza koordinatu eta administratzeko, Jarraipen batzordea sortuko da. Batzorde honek egitasmoaren unean uneko egoeraren berri jasoko du eta baita diru-beharrena ere.

**Seigarrena (Fundazioak argitaratzea)**

FUNDAZIOAk Hiztegia argitaratu ahal izango du, bere aldeko egile-eskubiderik gabe, baina ale-kopuruan, argitaraldi-kopuruan, argitalpen-motan edo beste edozertan mugarik gabe. Edozein modutan ere, argitaratzeko FUNDAZIOAk duen eskubidea hautazkoa da, eta elkarlana amaitu ondoren argitalpena nola egin aztertuko da. Era berean, argitalpena egiten bada FUNDAZIOAren esku egongo da honen logotipoa ezartzea, bai azalean eta baita kontra-azalean ere, eta EUSKALTZAINDIAren logotipoaren neurrrikoa.

**Zazpigarrena (Lan jiterik eza)**

Alde biok zera adierazten dute eta, libreki zera azaltzen, alegia, agiri honetan ezarritako harremanak ez duela Hiztegi Batuaren egileekiko FUNDAZIOAren inolako loturarik; hots, FUNDAZIOAk ez die soldatarik ordainduko hemen hitzartzen diren ekintzak aurrera eroateko EUSKALTZAINDIAk onartzen dituen langileei, ezta beste inolako ordainketarik egingo ere.

**Zortzigarrena (Ez betetzea)**

FUNDAZIOAk eta EUSKALTZAINDIAk hitzarmen hau salatu ahal izango dute beste aldeak bertan adierazitako eginkizunak betetzen ez baditu.

**Bederatzigarrena (Zergak)**

Hitzarmen honetatik eratortzen diren zergak, edozelakoak direla ere, EUSKALTZAINDIAren kontura joango dira, honek jasoko dituen diru-kopuruak gordinak izango direlarik.

**Hamargarrena (Arbitraia)**

Bi aldeen borondatea espreski epaitegietara jotzeari uko egitea da, eta hitzarmen hau dela eta elkarren artean sor daitekeen edozein arazo arbitraira joaz konpontzea.

Arbitraia berdintasunean ebatziko da, eta hori gauzatzea Bizkaiko Abogatuen Elkarteko Dekanoak izendatutako arbitroaren esku uzten da.

Edozein modutan ere, Bilboko Epaitegiak eta Epaimahaiak izango dira gai.

Orain arte adierazi denarekiko adostasunaren lekuko, bi aldeek hitzarmen hau ale bikoitzean sinatzen dute, hasieran jakinarazitako toki eta egunean.

| EUSKALTZAINDIA<br>(ahalez) | BBV FUNDAZIOA<br>(ahalez) |
|---|---|
| Jean Haritschelhar Duhalde jauna | José Angel Sánchez Asiain jauna |

**BANCO BILBAO VIZCAYA**
**R.A.L.V. / EUSKALTZAINDIA:** ***Convenio***

*Bilbao, 17-IX-1997*

## *CONVENIO* DE COLABORACION

*En Bilbao, a 17 de septiembre de 1997*

REUNIDOS

De una parte **D. José Angel Sánchez Asiain**, mayor de edad, con domicilio profesional en Bilbao, Gran Vía 12, 2.ª planta, provisto de D.N.I. n.º 14.349.698.

Y de otra parte **D. Jean Haritschelhar Duhalde**, mayor de edad, con D.N.I. n.º 13.348/89, y domicilio profesional en Bilbao, Plaza Nueva, 15.

INTERVIENEN

El primero en nombre y representación, y en su calidad de Presidente de la Fundación Banco Bilbao Vizcaya, con domicilio en Bilbao, Plaza de San Nicolás, n.º 4, constituida en virtud de escritura autorizada el día 19 de octubre de 1988 ante el Notario de Madrid, D. Carlos Huidobro Gascón, con el número 2.948 de protocolo, e inscrita en el Registro de Entidades Culturales Privadas con el número 228, N.I.F. núm. G-78.668.555 (en adelante LA FUNDACION).

El Sr. Haritschelhar en nombre y representación de la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia", de la que es Presidente, con domicilio en Bilbao, Plaza Nueva, 15 y N.I.F. G-48091961 (en adelante EUSKALTZAINDIA).

EXPONEN

1. Que la FUNDACION tiene por objeto genérico la promoción, programación, desarrollo, y ejecución de actividades de índole cultural.

2. Que LA FUNDACION ha expresado a EUSKALTZAINDIA su deseo de colaborar en el Proyecto de "DICCIONARIO UNIFICADO", que esta última está llevando a cabo y que constituye una de las bases fundamentales del euskara standard o unificado.

3. Que, por su parte, EUSKALTZAINDIA acepta y agradece a LA FUNDACION su colaboración, considerándola ejemplar del cometido que, en nues-

tros días, corresponde desarrollar a las instituciones sociales que impulsan, amparan y protegen el desarrollo científico, intelectual e investigador que a las Reales Academias compete.

Por todo lo cual, ambas partes contratantes, reconociéndose mutuamente la capacidad legal necesaria para formalizar el presente documento.

CONVIENEN

Celebrar el presente convenio de colaboración con arreglo a las siguientes

CLAUSULAS

**Primera (Objeto)**

El objeto de la colaboración es la elaboración del "DICCIONARIO UNIFICADO", cuyo contenido se recoge en la memoria presentada que, firmada por ambas partes, se incorpora como anexo y, se considera, a todos los efectos, como parte integrante de este convenio.

**Segunda (Duración)**

El presente convenio de colaboración tendrá una duración de TRES AÑOS, terminando el 31 de diciembre de 1999.

**Tercera (Importe de la colaboración)**

El importe de la colaboración que LA FUNDACION se obliga a pagar a EUSKALTZAINDIA se fija en 8.500.000 (OCHO MILLONES QUINIENTAS MIL) PESETAS ANUALES. En la cantidad mencionada van incluidos todos los impuestos y retenciones que pudieran derivarse de este convenio, incluso el Impuesto sobre el Valor Añadido (I.V.A.).

**Cuarta (Forma de pago)**

La fórmula de pago y su periodicidad dentro de cada año, será establecida por la Comisión de seguimiento a que se refiere la cláusula quinta del presente convenio, siempre en función de las necesidades financieras del Proyecto.

Los pagos se realizarán mediante transferencia en la cuenta bancaria designada por EUSKALTZAINDIA contra la presentación de la correspondiente factura.

**Quinta (Comisión de seguimiento)**

Para coordinar y administrar la colaboración entre la FUNDACION y EUSKALTZAINDIA, se constituirá una Comisión de seguimiento. Esta Comisión recibirá puntual cuenta de la situación en que se encuentra el Proyecto y de las necesidades financieras que vaya generando.

**Sexta (Publicación por la Fundación)**

LA FUNDACION podrá publicar la Obra, sin que se generen derechos de autor en favor de los mismos por concepto alguno y sin limitación de número de ejemplares, número de ediciones, forma de reproducción, ni ninguna otra. En todo caso, este derecho de publicación por parte de LA FUNDACION es opcional y, una vez terminada la colaboración, se estudiará la forma y modo de llevar a cabo la edición. Igualmente será opcional para LA FUNDACION, en caso de publicación, el incorporar su Logotipo, tanto en la portada como en la contraportada y con un tamaño igual al Logotipo de EUSKALTZAINDIA.

**Séptima (Ausencia de carácter laboral)**

Ambas partes expresan, y libremente hacen constar, que la relación establecida en el presente documento no implica vinculación laboral alguna de los Autores de la Obra con LA FUNDACION, la cual tampoco responderá ni vendrá obligada a pagar sueldo o salario, ni a satisfacer indemnización alguna, por cualquier concepto, a la persona o personas que EUSKALTZAINDIA pueda emplear para el desarrollo de las actividades aquí pactadas.

**Octava (Incumplimiento)**

Tanto LA FUNDACION como EUSKALTZAINDIA podrán resolver el presente convenio cuando la otra parte contratante incumpla cualquiera de las obligaciones contraídas en el mismo.

**Novena (Impuestos)**

Todos los impuestos y cargas fiscales en general, cualquiera que sea su naturaleza, que se deriven de la ejecución del presente convenio, serán a cargo de EUSKALTZAINDIA, siendo todas las cantidades a percibir por EUSKALTZAINDIA brutas.

**Décima (Arbitraje)**

Es voluntad de las partes renunciar expresamente al fuero judicial, y someter a arbitraje toda controversia, cuestión o incidencia que entre ellas pudiera surgir, en relación con este *convenio.*

El arbitraje resolverá la diferencia en equidad y su administración se encomienda al árbitro designado por el Decano del Colegio de Abogados de Vizcaya.

Serán competentes, en todo caso, los Juzgados y Tribunales de Bilbao.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, las partes intervinientes firman el presente convenio por duplicado, en el lugar y fecha al principio indicados.

| EUSKALTZAINDIA | FUNDACION BBV |
|---|---|
| (p.p.) | (p.p.) |
| Sr. D. Jean Haritschelhar Duhalde | Sr. D. José Angel Sánchez Asiain |